

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

GIZARTE POLITIKAREN ETA GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

6795

48/2010 FORU DEKRETUA, urriaren 13ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako arloko batzordeen eraketa, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arautegia onartzen da.

Arabako Foru Aldundia emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiteko konpromisoa bere gain hartu duen erakundea da. Hortaz, nazioarte, estatu eta autonomia erkidego mailako legezko gomendio eta araudiei erantzunez, administrazioaren maila ezberdinetan egiturak sortzea sustatzen du berdintasun politikak modu ezin hobean garatze aldera. Horrela, Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzaren proposamenari jarraituz, uztailaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 74/2008 Foru Dekretuaren bidez, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako sailen arteko batzordea eratzeko, antolatze eta abian jartzeko arautegia onartu zen.

Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, honakoa ezarri du: *"Foru-aldundiak (...) horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute"*. (15.3 artikulua).

Hori aintzat hartuta eta genero ikuspegia Arabako Foru Aldundiko sailen, bere erakunde autonomo eta sozietate publikoen jardueretan sistematikoki txertatzeko, honakoa proposatzen da: foru administrazioaren jarduera arlo ezberdinetan emakume eta gizonen berdintasunerako arloko batzordeak sortzea.

Horregatik, Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako arloko batzordeen eraketa, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arautegia onartzea (I Eranskina).

Bigarrena.- Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuari ahalmena ematea dekretu hau garatzeko, interpretatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren egintza eta xedapen guztietarako.

Hirugarrena.- Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzea. Dekretua argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko urriaren 13an.- Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, M^a. COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.- Gizarte Sustapeneko Zuzendaria, ELOÍNA MAYO CABERO.

I. ERANSKINA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ARLOKO BATZORDEEN ERAKETA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUTEGIA

1. artikulua.- Izaera eta atxikipena.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako arloko batzordeek lan, koordinazio eta partaidetzarako organoa osatzen dute, genero

Disposiciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL Y SERVICIOS SOCIALES

6795

DECRETO FORAL 48/2010, del Consejo de Diputados de 13 de octubre, que aprueba el Reglamento de constitución, organización y funcionamiento de las Comisiones de área para la igualdad de mujeres y hombres.

La Diputación Foral de Álava, institución comprometida con la igualdad de mujeres y hombres, en respuesta a las recomendaciones y normativa jurídica internacional, estatal y autonómica, fomenta la creación de estructuras en los diferentes niveles de la administración, para el óptimo desarrollo de las políticas de Igualdad. Así, a propuesta de la Dirección de Promoción Social, por Decreto Foral 74/2008, el Consejo de Diputados aprobó el 15 de julio el Reglamento de constitución, organización y funcionamiento de la Comisión interdepartamental para la igualdad de mujeres y hombres.

La Ley 4/2005, de 18 de febrero del Parlamento Vasco, para la igualdad de mujeres y hombres establece que *"Las diputaciones forales (...) garantizarán, mediante los recursos materiales, económicos y humanos necesarios, que en cada uno de sus departamentos, organismos autónomos y otros entes públicos dependientes o vinculados se ejecuten de forma efectiva y coordinada las medidas previstas en los mencionados planes y en esta ley"*. (Artículo 15.3).

Atendiendo a ello, y al objeto de sistematizar la integración de la perspectiva de género en las actividades de los departamentos de la Diputación Foral de Álava y en sus organismos autónomos y sociedades públicas forales, se propone la creación de Comisiones de área para la igualdad de mujeres y hombres en las diferentes áreas de actividad de la Administración Foral.

En su virtud, a propuesta de la Diputada de Política Social y Servicios Sociales, previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy

DISPONGO

Primero.- Aprobar el Reglamento de constitución, organización y funcionamiento de la Comisiones de área para la igualdad de mujeres y hombres (Anexo I).

Segundo.- Facultar a la Diputada Foral de Política Social y Servicios Sociales para dictar cuantos actos y disposiciones sean necesarios para el desarrollo, interpretación y ejecución del presente Decreto.

Tercero.- Publicar el presente Decreto Foral en el BOTHA que entrará en vigor al día siguiente de su publicación.

Vitoria-Gasteiz, 13 de octubre de 2010.- El Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- La Diputada de Política Social y Servicios Sociales, M^a. COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.- La Directora de Promoción Social, ELOÍNA MAYO CABERO.

ANEXO I

REGLAMENTO DE CONSTITUCIÓN, ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DE LAS COMISIONES DE ÁREA PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

Artículo 1. Naturaleza y adscripción.

Las Comisiones de área para la igualdad de mujeres y hombres constituyen un órgano de trabajo, de coordinación y de participación

ikuspegia foru administrazioaren jarduera arlo guztietako politiketan txertatzen jarraitzeko asmoz.

Ahal dela, sail bakoitzak arloko batzorde bana eratuko du. Hala ere, saileko titularrak horrela erabakitzen badu, hirugarren artikuluaekin bat eginez, zuzendaritza, erakunde autonomo edo sozietate publikoen mailan berdintasunerako arloko batzordeak ere ezar litezke.

2. artikulua.- Eginkizunak.

Hauek dira esleitutako eginkizunak:

- Bakoitzak bere alorrean, berdintasuna jorratzeko urteko jardueren plangintza egingo du, ondoren kasuan kasuko zuzendaritzak berretsi beharko duena.

- Berdintasunerako Foru Planaren plangintza hobetzeko proposamenak egitea.

- Indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak jasotako jarduerak ezartzea, baita Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako sailen arteko batzordeari elkarrekin egiteko jarduera estrategikoak proposatzea ere, sail guztiek ezar ditzaten.

- Berdintasunarekin lotutako prestakuntza proposamenak egitea.

- Berdintasunarekin lotutako ekintzek izango duten urteko kostua zenbatestea, ondoren kasuan kasuko zuzendaritzak onartzeko.

- Berdintasunarekin lotutako urteko jarduerak ebaluatzea, egin-dakoari buruz urteko txostena idatziz.

3. artikulua- Osaera.

1. Sail bakoitzeko titularraren erabakiaren bidez, zehaztu egingo da arloko batzordearen osaera eta, horrelakorik egotekotan, atxikitako zuzendaritzen, erakunde autonomoen eta sozietate publikoen mailako batzordeen sorrera eta osaera ere bai.

Zehazki, pertsona titular bakoitzaren izen-abizenak eta lanpostua adieraziko dira.

2. Ahal den neurrian lehen aipatutako batzordeak honako pertsona hauez osatuta izatea gomendatzen du: administrazio unitateen arduradunak, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako sailen arteko batzordean sailaren ordezkari lanetan ari direnak eta bere partaidetza proposa izan litekeela irizten den beste edozein langile.

3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako arloko batzordeek adituen partaidetza, laguntza eta babesa izan ahalko dute.

4. artikulua.- Funtzionamendu araubidea.

1. Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako arloko batzordeei laguntza eta aholkularitza eskainiko dizkie beren eginkizunak behar bezala betetzeko.

2. Foru sailek, erakunde autonomoek eta foru sozietate publikoek behar adina baliabide jarriko dute emakumeen eta gizonen berdintasunerako arloko batzordeen eskura, hauek beren eskumenak eta eginkizunak modu ezin hobean garatu ahal izateko.

3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako arloko batzordeei aplikatuko zaien araubide juridikoa bat etorriko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 22. artikuluan eta hurrengoetan kide anitzeko organoetarako aurreikusitakoarekin.

Batzordeburuak egingo du bileretarako deia eta idazkariak, aldiz, akta idatziko du. Biak, bai batzordeburua bai idazkaria, arloko batzordea eratzeke foru aginduaren bidez izendatuko dira.

4. Batzorde bakoitzak erabakiko du zenbat bilera egingo dituen urtean.

para el avance en la integración de la perspectiva de género en las políticas en cada área de actividad de la Administración Foral.

Preferentemente, cada Departamento establecerá una comisión de área departamental, sin perjuicio de que puedan establecerse comisiones de área de igualdad en el ámbito de una Dirección, Organismo Autónomo o Sociedad Pública, según se acuerde por la persona titular del Departamento, conforme a lo previsto en el artículo tercero.

Artículo 2.- Funciones

Las funciones que se le asignan son las siguientes:

- Planificar las actuaciones anuales en materia de igualdad en su ámbito respectivo para su ratificación por las direcciones correspondientes.

- Elaborar propuestas de mejora a la planificación del Plan Foral para la Igualdad.

- Implementar las actuaciones recogidas en el vigente Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres, así como proponer a la Comisión Interdepartamental para la igualdad de mujeres y hombres actuaciones estratégicas comunes para ser implementadas por el conjunto de los Departamentos.

- Elaborar propuestas de formación en materia de igualdad.

- Estimar el coste anual de las acciones en materia de igualdad para la aprobación por las direcciones correspondientes.

- Evaluar las actuaciones en materia de igualdad realizadas anualmente, redactando un informe anual de lo realizado.

Artículo 3.- Composición.

1. Mediante resolución de la persona titular del departamento, se determinará la composición de la Comisión de área de su ámbito respectivo y, en su caso, la creación y composición de Comisiones en el ámbito de las Direcciones, Organismos Autónomos y Sociedades Públicas adscritos.

En particular se incluirá nombre y apellidos de las personas titulares y puesto que desempeñan.

2. En la medida de lo posible dichas Comisiones deberían estar integradas por las personas responsables de las unidades administrativas así como por la persona representante del Departamento en la Comisión interdepartamental para la igualdad de mujeres y hombres, además de otro personal cuya participación se considere oportuna.

3. Las Comisiones de área para la igualdad de mujeres y hombres podrán contar con la participación, asistencia y apoyo de personas expertas.

Artículo 4.- Régimen de funcionamiento.

1. La Dirección de Promoción Social apoyará y asesorará a las comisiones de área para la igualdad de mujeres y hombres en la ejecución de sus funciones.

2. Los Departamentos Forales, Organismos Autónomos y Sociedades Públicas Forales asignarán a las correspondientes Comisiones de área para la igualdad de mujeres y hombres los recursos suficientes para el desarrollo óptimo de sus competencias y funciones.

3. El régimen jurídico aplicable a las Comisiones de área para la igualdad de mujeres y hombres es el previsto para los órganos colegiados en los artículos 22 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En particular, serán convocadas por quien ostente la Presidencia levantando acta de su desarrollo la persona designada como Secretaria, ambas nombradas al efecto en la orden foral de creación de la Comisión de área..

4. Cada Comisión establecerá el número de reuniones anuales a celebrar.